



EUSKO-GUDARIAK GARA

LEIZ

Urtero ohi duan bezala, erestaldi bikaina emana zuan Txistulari Elkartek, bere biltzar egunean. Bera entzuten egona zan emakumetxo, eresgile ospetsua den Juan Urteaga jaunarengana urbidurik, honela galdegin zion agurtu ondoren:

– «Ain egoki jo duten doinu hori, zurea edo aitarena da?»

Aipatzen zuen doinua, «Istillargi» biribilketa izanik, ba zekian bere egilea Urteaga zela, egitarauan agertzen zelako.

Aitarena zela, maitekiro erantzun zion.

–« Ba, horixe abesteagatik, semea erail zidaten» aitortu

zion ama gajoak, galdutako semearen oroitzapenaz.

Geroztik, setati ibili zitzaigun Urteaga jauna, emakumetxoari «Eusko gudariak gara» oroitarazi zion biribilketako doinua bere aitak sortua ote zen garbitu nahirik. Ta bere ta nire laguna denaren bidez alkartu ginen.

Nekiana erantzun nion, ta gertakizunaren berri izan zutenak eskatu zidaten, ainbatek abestua den biribilketa ta ereserkiaren xehetasunak zabaltzea.

Horra ba, idazkitxo honen zegaitia.

«Txistulari» deritza, bi ilabetetik behin argitaratzen duten Elkartearen aldizkariak. Guda aurretik eman zuen, erdiko eres orrietan, Luis Urteaga-ren biribilketa. Baina gerratean galdu ziren alerik gehienak, eta berriro argitaratzea erabaki zuten, «bera entzuteak alako zirrara sortzen zuelako entzuleen artean».

Aurrean dut, 1956gn abuztu-irailako alea, ta bere barruan, 89-92 zenbakiekin lau orrialdeko «Iztillargi» (Biribilketa). Urteaga jaunak asmatutako beste eresiaz asi ondoren, Bilintx miresgarriak abestu zizkigun bertso alai eztenkarien doinu zaharraz jarraitzen du, biribilketa neurriira itzulirik.

*«Asto baten gañian
Domingo Kanpaña»...*

Baita ere geroztik, erreteriarrok ain maite genduen ta Aberria su ta gar ondatzera jeiki zan etsaiak hil zigun D. Martin (G.b.) apaiz jaunak, bere anai agurgarri D. Manuel Lekuona-rekin sortu zuten eresantzerkian, bertso doinu berdina erabili zuten:

*«Eun dukat eder dauzkat
pikope batian»...*

Bat eta beste ez dira izan orde, eusko gudarien ereserkia izatera iritxiko zenaren, lehen ahapaldi doinua baizik. Alejandro Lizaso txistulari gorengoari zor diogu bigarren zatia, ta «Ixtarkundia» guda-saildiko tolosarrei beraren ahapaldia.

Gudarien ibilketarako motelegia zeritzaidan Urteagaren «Istillargi» biribilketa. Behin ta berriro belarriratu nion nere iritzia. Goruntz zegian zerbait sortu behar zukeala, eresia bizi-tuaz, gudariak bizkortzeko... Ta baita egin ere.

Berealaxe asi ziren laugarren saileko tolosarrak, beren buruzagiaren omenez abesten:

*«Eusko gudariak gara
Euzkadi askatzeko;
gerturik daukagu odola
bere alde emateko.
Irrintzi bat entzun da
mendi tontorrian;
guazen gudari danok
«Urdirña»-ren atzian.*

Luzaroan uste izan dut, «Uxola»-ri zor genizkiola ahapaldiaren hitzak; baina ez du egiletzat bere burua agertu nahi, tolosar gudariena dela esanaz...

Laister ziren gudari oro berori abesten; jakina, Urdirñaren orde *ikurriñan* abestuaz. Ezin bai zuten *ikurriñaren* tartekatu, neurrian sartzen etzitzaielako.

Aski ezaguna zen Lizaso'tar Alejandro, bere garaikoentzat. Alaz ere, ba ote Erreterian, ta batez ere gazteen baitan, Eusko Jauraritzak Europa zehar, erti mezularitzat bidali nahi izan zuen txistulari gorengoaren oroipenik?... Ba, anaiarena izanagatik, eredutzat har dezakezutela erreteriar gazteok, da nire iritzia.

Mendia utzirik Europara bidali nahi izan zutenean, jakizute bere erantzuna haxe izan zela: «Aberria galzorian aurkitzen da, ta nire tokia mendian dut, bere alde jokatzeko».

Irmo ta indartsu erantzun ere, behin eta berriro. Ta hori, buruan sartuko zioten balaz ilko zela uste izanarren, Arabako mugan bere gudariak atzeraka egin ahal izateko, etsaieri aurre ematen zioten bitartean gertatu zen bezala. Geroztik han datza, zerraldo gelditu zen eusko lurraldea bere gorpuaz ongarriturik. Baina zihurki, bere arima zeruan dela, txistu zoliaz aingeruak alaitzen.

Uste horretan izateko, Pagotxuetan igarotako Gabon gaua dut gogoan. Lubakietatik irten ta bere txistuarekin biribilketa joaz, joan zitzaigun Legution, etsaien lubakietaraino. Etsaiak ala anaiak?...

Beldurraren beldurrez itxaron genduen berriro gugana-tzea. Joan bezala itzuli zen, ta jakingarria noski, gau guzian etzala tiro bat ere entzun. Ordu batzuetarako bederik, pakea lortu zuen.

Intxorta mendietako matxinadak gogoratuaz, Elgetan bildu ginen oraintsu. Ta jaberik gabeko idazkunekin agurtu ginuzten. Zer zioten?... Ba auxe: «Lehengo gudariak bai... eta oraingoak zer?»

Alejandroren oroipenarekin zer erantzun?... Antzik ote dute, pakea eskeiniaz izkiluak utzi ta txistu soinuaz gabonak zorientzearekin?... Honelakoak izan dira eusko gudariak. Ez dira inoiz, norbait erailtzeko zelatan egonak. Alde nabaria, batzuen ta besteen artean. Hori horrela izanik, nire erantzuna ezin besterik: Burrukariek direnik ezin uka, baino gudariak?...

Jarrai egin ba anai, zeru goitik txistu jotzen. Txistu zoliaren otsak lortuko ahal dik, amesten diagun askatasun ta pakea; guda beltzaren garaian, ordu batzuetarako lortu ahal izandako pake zorientzua.

Bitartean, gu gudariok abesten jarraituko diagu,

*Eusko gudariak gera
Euzkadi askatzeko.*

